

Matematikarako lagungarriak diren ideiak

Dislexiak zenbait arazo eragin ditzake matematikekin. Diskalkuliak eragindako arazoekin harreman zuzenik ez badute ere, komunak izan eta nahasi egin daitezke.

Zailtasunak Lehen Hezkuntzan

- Matematikaren hiztegia ikasteko zailtasunak.
- + eta x ikurrak nahasten dira, baita + eta – ikurrak ere.
- Zenbakiak nahasten dira biratzearen ondorioz; adibidez, 6 eta 9 zenbakiekin edota 2 eta 5 zenbakiekin gertatzen da.
- Biderkatzeko taula buruz ikasteko zailtasuna.
- Kalkuluak egiterako orduan jarraitu beharreko noranzkoarekin nahasketa ageri da, esaterako, kenketak egiterakoan.
- Taula bat interpretatzeko jarraitu beharreko noranzkoa nahasgarria izan daiteke, autobus edo tren ordutegien taula kasu.
- Segidekin arazoak; adibidez, 18 idatzi beharrean 81 idaztean, edo 29 idatzi beharrean 92 idaztean.
- Balio posizionala ulertzeko zailtasunak.
- Kalkulu mentalerako zailtasunak, epe laburreko memorian edo memoria exekutiboan ageri diren arazoak direla eta.
- Hitzez adierazita dagoen problema matematiko bat ulertzeko zailtasunak.

Nola lagundu Lehen Hezkuntzan

- Hiztegia ulertzea lagungarria da. Zenbaitetan, hainbat adierazpen erabil daitezke eragiketa edo gauza bera adierazteko. Adibidez, “kendu” edo “X ken Y”.
- Maiztasunez eskaini matematikekin loturiko esperientzia praktikoak. Esaterako, erabili benetako txanponak diruaren kontzeptua errazago ulertzeko.
- Adibide zehatzak baliatu ideiak azaltzerako orduan. Blokez osatutako dorrea eraiki eta zenbatu piezak kokatzen dituzun heinean. Zatitu tarta edo pizza bat eta irakatsi zatikiak zer diren.



- Hobetu noranzkoaren zentzuaren ulermena. Esaterako, adierazi eskumatik ezkerrera egiten direla batuketak. Azaldu ordutegien taula goitik behera irakurri behar dela, ezkerretik eskumara irakurri beharrean.
- Hitz egiterako orduan izendatu eta nabarmendu zenbakiak: telebista-kanalak, datak, urtebetetze egunak, atari baten zenbakia, orrien zenbakiak, telefono zenbakiak.
- Zenbatu golak sartzen dituenean, sokasaltoan ari denean, eskailerak igotzerakoan...
- Zenbakiak lantzeko jolasak erabili: partxis, domino, hiruko artzain-jokoa.
- Erabili matematikarekin erlazionatutako hitzak elkarrizketetan eta aipatu ondorengo adierazpenak: berdin, baino gehiago, baino gutxiago, zenbat?, hau baino zenbat gehiago?
- “Pareak” aurkitu behar diren karta-jolasak erabili, berdinak diren sinboloak antzematen ikaste aldera.
- Orduak eta denboraren zentzua ikasteko, denborarekin lotutako kontzeptuak hainbat modutara erabili: egunaz eta gauaz hitz egin, zerbait goiz edo berandu dela adierazi.
- Animatu haurrak sukaldean aritzera, gauzak neurtzen eta pisatzen ikas dezaten. Zenbakiak hobeto ulertzea ahalbidetuko die gaitasun horiek egunerokoan ageri diren zereginekin praktikatzekoak.